

plisti-plasta

100 milioi hondartzen garbiketan

Gipuzkoako Ingurugiro Sailak 97.850.000 pezeta erabiliko ditu Donostia, Hondarribia, Orio, Zarautz, Getaria, Zumaia, Deba eta Mutrikuko hondartzen garbiketan. Asteburuero hegazkin bat eta pirataz jantzitako aktoreak izango dira hondartzetan.

Haur parkeak euskaraz


Uda honetarako euskarazko haur parkeak antolatu ditu EHk, *Mintzoa jolastokia* izenarekin. Parke hauek Euskal Herriko 16 herritan jarriko dituzte, 2 eta 12 urte bitarteko haurrentzat. Ekimen honekin haurren euskaraz jolasteko eskubidea aldarrikatu nahi dute.

Ordutegi aldaketa

Azpeitiko trenaren museoak ordutegi aldaketa izango du uda sasoian. Asteartetik larunbatera 10:30etik 14:00etara egongo da zabalik goizez eta 16:00etatik 19:30era arratsalde. Igande eta jaiegunetan, goizez soilik irekiko dute. Uda amaitu arte ordutegi hau izango du museoak.



begira



AITZIBER BASAURI

Aldundiko agintaririk ez, Balendin Berrio-Otxoaren ospakizun egunean. Gipuzkoako San Inaziorekin batera, Bizkaiko zaindaria da Balendin Berrio-Otxoa. Atzo ordea, ez zuen horren itxurarik eman Berrio-Otxoaren jaioterri den Elorrioko elizak haren ospakizun egunean. Santu izendatu zutenetik lehenengo aldiz, Aldundiko agintaririk ez zen agertu Elorriora. Gainerakoan, Elorrioko herriak jai-giroan ospatu zuen jai eguna; baita kostaldetik hurbildutako hainbat lagunek ere.

Nahikari Gabilondo

• BERTSOLARIA •



EGUNKARIA

«Saioetako giroan uda eta festak sumatzen dira»

Mikel Gartzia/ Donostia- Nahikari Gabilondo 22 urteko bertsolari gaztea da eta dagoeneko hainbat sari eskuratu ditu; azkena, Osinalde saria duela 2 urte. «Gogoz jardutea» da bere sekretua. Udan bertsolarien jarduerak nola aldatzen den jakin nahi izan dugu berarekin hizketan.

■ Nola agertzen da bertsolari baten agenda udaran?

Neguan baino beteagoa, nahiz eta behe mailan nahi genukeen adina konpleto ez. Abuztua da saio gehien dauzkadan hilabetea.

■ Saioetan giro aldaketa sumatzen al da?

Denak gaude desberdin uda eta festak direlako eta horrek giroan eragiten du, bai jendearengan, bai bertsolariengan.

■ Ze motatako bertsoak eskatzen ditu jendeak?

Hori askotan lekuaren eta antolatzailaren arabera izaten den arren, azkenaldian ikusleak ez du sakontasuna nahi, barrea eragingo dionaren bila doa.

■ Eta zuri nolakoak gustatzen zaizkizu?

Nik sakona nahiago dut, baina saio guztietan behar izaten da umore puntu bat.

■ Zeintzuk dira udaran bertsotan aritzearen alde on eta txarrak?

Alde onak urte osoko berdinak: jendea eta beste herrietako giroa eza gutzeko aukera. Txarrak, berriz, batzuetan planak alde batera utzi beharra, baina alde onak bakarrik ikusten saiatzen naiz.

gaur festak non

AMANA (EIBAR)

UZTAILAK 7

- 19:00: Txupinazoa eta kalejira buruhandiekin eta Tolosako *Oria* txarangarekin.
- 19:30: Umeentzako jolasak.
- 20:30: Entzierro txikia.
- 20:30: Jubilatuentzako afaria eta dantza saioa Arnok girotuta.
- 23:00: FLITTER eta SKALARIAK taldeen kontzertua Amañako plaza.
- 23:30: Dantzaldia Amañako dorreetan, AGIRRE taldearekin.

AMOROTO

GAUR

- 12:00: Hilan aldeko meza eta ondoren txikiteoa trikitilarietara.
- 13:00: ETORKIZUNA dantza taldearen ekitaldia.
- 14:30: Zaharren Bazkaria. Bazkalostea ESTEIBARREK alaitua.
- 17:30: Briska txapelketa.

- 18:00: Umeen jolasak.

- 20:00: HERIZ magoaren saioa.
- 23:00: Erromeria EZKERRA taldearekin eta jaien amaiera.

BELAUNTZA

UZTAILAK 7

- 23:00: Gaztetxean, ASGARTh eta IZURRI BERRIAK.

LESAKA

GAUR

- 18:00: Kadete mailako txirrindularientzako XIV. *Marino Lejarreta Saria*.
- BIHAR
- 12:00: Altxaferoa eta segidan, trikitilariak, txistulariak eta haur txikien danborrada.
- 18:00: Frontoian, *Tantirumairu Dantza Taldearen* erakustaldia.
- 20:00: Danborrada Nagusia
- 24:00: Plaza Zaharrea, AKELARRE musika taldea.

UZTAILAK 7

- 08:30: Ezpatadantzarien meza.
- 11:00: *Zubigainekoa* dantza.
- Gauean: GAU BELA taldea Plaza Zaharrea.
- 23:45: ZIZKUITZ txaranga.

ZALDIBAR

UZTAILAK 7

- 19:00: Donien-atxa jarriko du herriko jendeak.
- 19:15: Jaietako kartel lehiaketako sari-banaketa udaletxean.
- 19:30: Txapligua jaurtiko da udaletxetik, jaietako hasiera emanez. Ondoren, kalejira txistularietara eta buruhandiekin.
- 20:30: Odoloste-jana Bekoetxe kalean.
- 22:30: Rock kontzertua pilotaleku zaharrea, ANESTESIA eta RESTON SOBRE taldeekin.
- 24:00: Erromeria JOSELU ANAIAK taldearekin Euskalerrira kalean.